

EUROPAREN DIMENTSIOA ETA HEZKUNTZA: KONTZEPTUA ZEHAZTEKO ZAILTASUNAK

Alfonso Caño Reyero
Gizarte Zientziak esparruko teknikaria
ISEI-IVEI

Europaren dimentsioa kontzeptuaren inguruko zenbait gogoeta

Europaren dimentsioaren ideia erabili izan da ia Europako Ekonomia Erkidegoaren hasieratik bertatik. Adostasun zabala zegoen adierazpen hau erabiltzeko ekonomia, politika, gizarte, zuzenbide arloan bai eta beste arlo batzuetan ere, estatukideen espazio geopolitikoari baitzegokion. Kontzeptuak ez zuen aplikatzerakoan arazorik planteatzen. Baina, 1976ra arte itxaron beharko zen, lehendabizi *Europaren hezkuntza dimentsioa* kontzeptua ikusteko. Hori Europako Hezkuntza Ministroen Kontseiluaren Ebazpen batean (otsailaren 9koa) gertatu zen, zehaztasunik gabe adierazi arren.

Europa eraikitzean –oso hitz zabala– laguntzea proposatzen du Kontseilu horrek, eskolako curriculumetan Europaren identitatea osatuko lituzketen gaiak sartuz. Beraz, Europaren dimentsioa kontinentearen identitatearekin erlazionatzen du. Jende ugari ahalegindu da kontzeptu hau azaltzen, nondik eta politika, filosofia, soziologia edo hezkuntza esparruetatik; betiere zeregin horrek dituen zailtasunak egiaztatu egin dituzte: historian eta geografian sakabanatzea eta testuingurutik kanpo geratzeko arriskua.

Europako Kontseiluak, eragozpen horiek antzemanda, 1994an aho batez onartu zuen Europako berariazko erakunde gisa definitzea. Aldi berean proposatzen zuen «*mugak trazatzearen ideia uztea, naturak berak aukera handia eta irekia utzi diolako gizakiak asmatzeko duen gaitasunari*»; izan ere, Europako mugen ikuspegi ebolutiboagoa eta hedakorragoa aldarrikatzen zuen, Europa «*printzipio izpiritual bezala edo elkarrekin bizi izatearen nahi bezala ulertzen zuelako, errealitate geografikoa baino*». Hortaz, *Europaren dimentsioari* buruzko adierazpen erraza eta adostua ematerako orduan zailtasunak agerian geratzen dira. Konplexutasun hori handitzen da kontinenteko hezkuntza sistema guztientzat erreferente berberak definitu nahi badira, ikasteko ikasle europarren izan dituzten prozesuetan kontuan izateko.

Historiografia positibistak zenbait zibilizazio zerrenda prestatu ohi du, historian zehar gizateriak sortu zituen eredu desberdinak azaldu nahian. Saikapen polemikoenetako bat Amerikako Estatu Batuetako Samuel Huntington-ek¹ egin zuen. Ikuspegi kontserbadore eta autoritario batetik honako zibilizazioak bereizten zituen: «*mendebaldekoa, konfuzianista, Japoniakoa, islamekoa, hindua, ortodoxoa eta Latinoamerikakoa eta, beharbada, Afrikakoa eta budista*».

Zenbait urte lehenago, Fernand Braudel historialari frantsesak arazo bera aztertu zuen. Horrek, lehendabizi, europarrak diren eta ez diren zibilizazioak bereiztu zituen eta, europarrak direnen artean –orain interesatzen zaizkigunak– hurrengo hiru multzo nagusiok desberdinu zituen: berezko Europari dagokiona (edo Mendebaldekoa); itsasoz haraindiko Europak deitzen zituena (multzo hartan Latinoamerika, Estatu Batuak, Kanada, Australia eta Zeelanda Berria bereizten zituen) eta Ekialdeko Europa (hau da, antzinako Sobiet Batasuna). Hala eta guztiz ere, Braudelek *zibilizazioaren*² kontzeptuaren inguruan egin zuen gogoeta oso interesgarria da. Berak geografia eta historia biltzen zituela uste zuen. Historia atalean, *gizartea, mentalitatea eta jarraipena*

¹ S.P. Huntington. *El choque de civilizaciones*. Barcelona: Paidós, 1997.

² F. Braudel. *La gramática de las civilizaciones*. París: Arthaud-Flammarion, 1987.

kontzeptuak sartzen zituen. Europari dagokionez, berriz, Braudelek gizartea bere pluraltasunaren dimentsioan ulertzen zuen. Gaur egun, ekonomiak Europako esparrua gainditu du eta munduko mugimenduan integratu da; beraz, merkatu ekonomiak karakterizatzen du Europa. Aipatutako historialariak mentalitate kolektiboa honela azaltzen du: garai bakoitzeko munduaren eta gauzen adierazpenak agerian uzten dituzten kontzientzia uneak, hain zuzen. Azken adierazpen horiek, gainera, jarrerak iradokitzen dituzte, aurreiritziak sorrarazten dituzte eta gizarte baten mugimenduetan eragiten dute (erlijio aniztasuna, mitoak, etab.). Europaren kasuan, mentalitate kolektiboa komunean eraiki beharrean, «*ezaugarri komunak dituen amaigabeko aniztasuna*»³ erakusten du. Azkenik, jarraipena denbora historikoaren ezaugarri garrantzitsuenetako bat da eta, Europari dagokionez, Braudelek hainbat zibilizazio europarretan zehar sortutako baloreekin erlazionatzen du kontzeptu hori. Haren ustez, Europako lehenengo zibilizazioa Erdi Arokoa izan zen. Zibilizazio haietatik hiri zibilizazio bat eratu egin zen. Hura merkataritzan (kapitalismoa) oinarritzen zen, espazio zatikatu eta ezegonkor batean sortu zen, apurka-apurka arauak sortzen zituen (zuzenbidezko estatua: publiko eta pribatuen arteko bereizketa eta botereen banaketa) eta bertan eskubideak zituzten hiritarrak bizi ziren (1789ko aldarrikapena).

Ikuspegi horri Braudelek gatazkaren ideia eransten dio, Europako zibilizazioak berak daraman deuseztatzearen hazia. Dimentsio tragiko horrek adierazpenik gorena izan du XX. mendeko Europako gerra zibilean.

Espazioari dagokionez, Europaren kontzeptua denbora joan ahala aldatu eta bilakatu da; alde batetik, mugek gorabeherak izan dituztelako eta, bestetik, Amerika eta Ozeaniaraino proiektatu direlako. Duela hamarkada gutxi batzuk, oraindik gerra hotzak eta bloke politikak Mendebaldeko eta Ekialdeko Europaren arteko banaketa zekarten; eskolako materialetan islatzen zen banaketa hori, hain zuzen. Material haietan historian zehar bereiztutako bi errealitate bezala aurkezten ziren. *Mendebaldekoa* eta *europarra* hitzak identifikatzen ziren ia erabat. Ikuspegi ideologiko horrek Europaren mendebaldekotasunaren kontzepzioa sendotu zuen eta, neurri handi batean, gaur egunera arte irauten duen inertzia gogor bat eratu zuen. Espazioaren ikuspegi zatikatuak aurkezten jarraitzea ohikoa izaten da. Sarritan, europarraren ikasketa Europako Batasuna osotzen duten herrialdeetara mugatu egin da.

Laburbilduz, ez dago adostasunik Europako espazio fisikoaren mugei buruz. Ekialdea eta Hegoekialdea bereziki eztabaidan diren bi esparru dira. Tradizioz Europako mugarrak Uraletan eta Kaspio Itsasoan kokatu ohi ziren. Mantendu behar al da bereizketa hori gaur egun? Amaitzen da Europa Uraletan edo *Europaren dimentsioan* Siberia eta antzinako Sobiet Batasuneko transkaukasiar errepublikak ere sartu behar ditugu? Turkia Europa al da? Eta, *Europaren dimentsioan* sustrai kultural indartsuenetako bat mediterranearra izan bada, non kokatu behar dira mugak Mediterraneoko hego itsasertzeko herrialdeekin? Eta, are gehiago, utzi behar al ditugu dimentsio europar honetatik kanpo?

Erantzuna ezin da bestelakoa izan: ez dago muga argirik europarra zer den eta zer ez den. Berriz, Europako Kontseiluaren interpretazioa gogora ekartzea komenigarria da, bere definizioa ez baitu errealitate fisiko zehatz batean oinarritzen, printzipio izpiritual batzuk komunean izatean eta «*elkarrekin bizi izatearen nahian*» baino.

Beste alde batetik, Europari buruzko ikuspegi murrizteko sortutako eragin kaltegarri bati erreparatu behar diogu, jarrera arrazistak eta xenofoboak bultzatzen baita.

³ D. Barthélémy. *Análisis del concepto de dimensión europea, La dimensión europea en la educación secundaria* liburuan. Madril: Conseil de l'Europe, Anaya eta Ministerio de Educación y Cultura, 13-44 orr.

Hezkuntzako aditu ugari ohartu dute ikuspegi eurozentriko eta murrizta emateak gazteengan eduki ditzakeen eraginez. Ikuspuntu identitario horrek *bestea* mesprezatzea eragiten du. 2004ko zabaltzearen aurrean, *bestea* delako horretan Erdiko eta Ekialdeko Europako errepublika batzuetako europarrak ere sartzen ziren. Oraindik gaur egun, Europako musulmanen, ijito herriaren eta beste batzuen kontrako jarrera diskriminatzaileak gaindizetik urrun samar gaude.

Hortaz, Europaren dimentsioa muga fisiko itxietan sartzearen edo haren zatietako bakar batekin (mendebaldekkoa, kristaua...) identifikatzearen pretentsio guztiak baztertzen baditugu, ba al dago alternatiba gehiagorik?

Edgar Morin amarru eurozentrikoa saihestea proposatu zuen lehenengoetako bat izan zen. Hark zenbait kontzeptu eta beren aurkariak sartzen ditu *elkarrizketa kiribila* edo *espirala*⁴ deitzen ziona azaltzeko: «*erlijioa/arrazoia, fedea/zalantza, pentsamendu mitikoa/pentsamendu kritikoa, enpirismoa/arrazionalismoa, existentzia/ideia, indibiduala/unibertsala, problematizatzea/birfundamentalizatzea, filosofia/zientzia, kultura humanista/kultura zientifikoa, zaharra/berria, tradizioa/eboluzioa, indibiduala/kolektiboa, inmanentzia edo mundu hau/transzendentzia edo haraindikotasuna, hamletismoa/prometeismoa, quixotismoa/santxismoa, eta abar*». Elkarrizketa horrek, nolabait ere, Europaren dimentsioa problematizatzean jartzen du enfasia, Europaren kontzeptua, aldi berean, eraiketa historiko irekia, dinamikoa eta kontraesanekoa baita.

Europaren dimentsioa: baloreetan oinarritutako kontzepzio ireki bat

Europaren dimentsioaren definizioa argitzea, geografi espazio zehatz batean garatu den zibilizazio historiko baten emaitza gisa eta eredu ekonomiko eta instituzio komunaren arabera, ahalegin antzua dela ematen du⁵. Zenbait egilek Europaren dimentsioaren irudipen bat proposatu dute baloretan oinarrituz. Baloreak izan dira denbora igaro ahala –hortxe berriro Braudelen jarraipenaren kontzeptua– Europako estatuak eta nazioarteko erakundeak oinarritzen diren printzipio nagusietako euskarria sortzeko balio izan dutenak. Gaur egun, irudipen ireki horren barruan, proiektu gisako Europaren dimentsioaren ideia bat garatzen ari da. Ikuspen horrek Europa bere bilakaeran proiektatzen du, oraingo garaitik etorkizunerantz, aniztasunak, pluraltasunak eta heterogeneotasunak karakterizatu duten iraganeko mugetan geratu barik. Gainera, historiaren eta baloreen etengabeko berrikuste kritikoaren beharra aldarrikatzen du. Europaren tradizioak definitu dituen baloreei (askatasuna, giza eskubideak, demokrazia, etab.), denboraren bilakaerak beste berri batzuk dakartzio; esate baterako, elkartasuna, elkarrizketa, tolerantzia, planetako herri guztientzako aurrerapen sozial eta ekonomikoa, ingurumenaren jasangarritasuna, hiritartasun unibertsalaren eraketa...

Gizartearen erronka berrien aurrean, baloretan oinarritutako kontzientziaren garapenarekin batera, Barthélémy-k proposatzen du⁶ erronka berri horiek Europaren dimentsioaren eraketari eranstea, errealitate nazionalak gaindizten baitituzte:

1.a) Erronkak unibertso multipolarrean Europak duen lekuarekin erlazionatzen dira. Europak bere bazkideekiko harremanak hausnartu behar ditu berriz, elkartasunez egin ere; hau da, Europako Batasuna osatzen dutenen herrien kooperazioa eta integrazioa gero eta handiagoak izan behar dira.

⁴ E. Morin. *Pensar Europa*. Paris, Gallimard: 1987, 127-128. orr.

⁵ M. Foucher. *Las nuevas caras de Europa*. Strasburg. Council of Europe Press. 1995, 13-14. orr.

⁶ D. Barthélémy. *Op. cit.*, 22-26. orr.

2.a) Biztanleen mugikortasuna. Antzinetetik, zibilizazio europarra populazio mugimenduen emaitza izan da. Gaur egun, mugikortasuna kulturaskotako eta eleanitzeko errealitate bezala adierazten da, Europaren identitate plurala irudikatzen laguntzen duena («*guztiok harreman, eragin eta abarren sare askotako bidegurutze batean gaude*»). Gogoeta eta eztabaida liberako lanabesak garatu behar dira. Audigierrek dioenez, «*elementu aurkarien arteko elkarrizketa aurrerabidea bihurtu*»⁷ eta pertsona guztiak libreki eztabaidatu, erabaki eta onartutako arauen arabera bizitzeko gai izatea. Unibertsaltasunaren planteamenduarekin, kultura partekatua aldeko ingurunea sortu behar da, baina diferentziak eta aniztasuna integratuko dituena.

3.a) Lanaren era berriak eta giza jardueraren berezko esanahia kontuan hartzea. Alor horretako honako errealitate berriok ere sartu behar dira: Europako gizarteetan dagoen baztertzearen eta *laugarren mundu* bat hedatzearen arriskua, lan munduaren desertizazioa eta haren Europaren dimentsioarekiko egiten zaion ekarpenaren galera, aisialdian eta harreman pertsonaletan gertatzen ari diren aldaketak...

4.a) Aurrerapen zientifiko eta teknologiko berriak; adibidez, bioteknologiaren alorrekoak, informazio autopistak...

Izan ere, behin baino gehiagotan adierazi dute hezkuntzan erantzukizuna duten Europako erakundeek irakaskuntzan Europaren dimentsioa sartzeko interesa. Alde batetik, Europako Batasunean gertatzen ari den erakundeen arteko integrazioak aholkatzen du herrietako esparruak gaintzea. Kontuan izan behar da tokian tokiko hezkuntza sistemen ezaugarriak estatuen esparruetatik zehaztu direla. Beste aldetik, azkar bilakatzen ari den errealitateak ikasleek dituzten prestakuntza beharrak birpentsatzera behartzen du, ikasleek mugikortasun hazkorrari, beste latitude eta kultur testuinguruetatik etorritako pertsonetikiko bizikidetzari, lan merkatuen aldaketei eta abarrei aurre egin beharko baitute.

Zehaztapen berri horretan hurrengo adierazpenak goraipa ditzakegu:

- Edukinak. Europako hezkuntza arloan dagoen adostasun zabalenetakoa ematen da hezkuntza etapa guztietako curriculumetan, Europaren dimentsioari buruzko edukinak sartzeko komenigarritasunaren inguruan. Gizarte zientziak, geografia, historia, ekonomia, filosofia eta hizkuntza jakintzagaiek errazago har lezakete zeregin hori. Ikasleek lortu ahal diren gaitasunen moduan definitu behar dira helburuak; hau da, ikasle bakoitzak egoera zehatz baten aurrean mobilizatzen dakizkien ezagutzak eta esperientziak adierazteko. Dena dela, Europaren dimentsioa curriculum edukinetan sartzeak ez du esan nahi ikuspegi erregional, nazional edo globalak ordezkatu edo ezeztatu behar direla.
- Diziplinartekotasuna. Diziplinarteko ikuspegiak jakintzagaien arteko koordinazio horizontala bermatu behar du, perspektiba eta helburu partekatuetatik abiatuz; hala ere, batez ere panoramika holistikoa eskaini behar du, Europaren dimentsioa eta errealitatea karakterizatzen duen aniztasun poliedrikoarekin bat etorritik. Jakite diziplinara testuingurutik kanpo geratzeko, zatikatua izateko edota ikasleentzat esanguratsutasuna eta funtzionaltasuna galtzeko arriskuan egon daiteke. Helburua hurrengoa da: Europaren dimentsioak ikasleak treba ditzan, zertan eta ohiko bizitzan jarduten, baloreak sortzen, produktuak ekoizten eta arazoak konpontzen.
- Balore demokratikoak. Europaren gizartea den bezala, denboran zehar eraikita eta gatazkatsua den hain errealitate anitz eta konplexua ikasten aritzea,

⁷ F. Audigier. *Educar sobre la sociedad, transmitir valores*. Strasburg. Council of Europe Press. 1993: 16. orr.

bakarrik egin daiteke hezkuntza proiektu sendoa egiten bada; egitasmoa baloreen kultura garatzean oinarritu beharko zen eta hiritartasunerako hezkuntza sustatzea helburutzat izango beharko zen. Bestaldetik, baloreen hezkuntzak badu esperientzia nahikoa Europan. Frantziako eredutik abiatzen da, ikasleek balore errepublikanoak bereganatu behar izatean oinarritzen dena. Handik etika moduko jakintzagaien curriculum programazioa edo hezkuntza zibikoari buruz berezko edukinak sartzeara eragin du. Edonola ere, debatea irekia dago⁸, baina Errepublikaren balore zaharren ikaskuntza eta berriei buruzko gogoeta bermatu behar du hezkuntza sistemak, betiere balore horien gainetik perspektiba kritikoa eta erlatibista galdu barik; izan ere, giza asmakizun guztiak bezala, baloreak behin eta berriro aztertu behar dira.

- Atzerriko hizkuntzak. Dударik gabe, atzerriko hizkuntzak ikasteak Europan ikasleen integrazioa eta Europatik urrun dauden errealitateetara zabaltzea erraztuko ditu. Administrazio desberdinetako hezkuntzako agintariek horien ikasketa bultzatzeko interes bizia adierazten dute, handituz doana gainera.
- Eskola antolatzea. Gainerako ezaugarrien artean, Europaren dimentsioa balore demokratikoetan oinarritzen da; hortaz, beregain jotzea eskolaren antolamenduarekin koherentea izan behar da, eskola bera ere demokratikoa izan behar da eta, horren ondorioz, bertako kudeaketan etengabeko elkarrizketa eta eztabaidan eragile guztiek parte hartzea bermatu behar da. Europaren dimentsioa kontuan izatea ezin da curriculum eremuan geratu soilik; eskola antolatzea, erabakiak hartzea, parte hartzea, gatazkak gainditzea... ere blaitu behar ditu eta.
- Baliabideak, eskola proiektuak eta irakasleen prestakuntza. Hezkuntza esparruan Europaren dimentsioa bultzatzeak beste exijentzia batzuk ere badakartza; besteak beste: irakasleen eta zuzendaritza-taldeetako prestakuntza –hasierakoa zein etengabekoa, berau martxan jartzea ez izateko boluntarismoaren ezta bat-batekotasunaren araberakoa–; material eta baliabide didaktikoak egitea, ikasgelan erabili ahal izateko; sare moduko sistema antolatzea, eztabaiden eta hausnarketen euskarriztat balio izateko; hezkuntza produktuen hartu-emanak; informazioa... trukitzea; datu-bankuak sortzea eta baliabideak eskaini, argitalpenen berri eman eta, azken finean, erakunde-sare konplexuaren eta eskolaren arteko lotura emateko balio duten hezkuntza leihoak Europako erakundeetako webetan sartzeara. Halaber, Europaren dimentsioaren potentzialtasuna ezin izango litzateke garatu ikerketa eta berriztapena bultzatzen ez badira. Hainbat esperientzia interesgarri badaude herri desberdinetako ikastetxeen arteko harreman horizontaletan oinarritutako sareak sortzean proiektu partekatuetan kooperatu eta parte hartzeko, baita ikastaldeetan trukitzean, eskolaz kanpoko jardueretan, eta abarretan ere. Praktika horiek zabaldu eta egin direnak ezagutarazi behar dira.

⁸ Gai horri buruz François Audigierren zenbait argitalpen gomenda daitezke: *L'éducation à la citoyenneté*. Collection chercheurs et praticiens. INRP. 1999; *L'éducation civique, colonne vertébrale à la citoyenneté*. Centre Alain Savary. Paris. INRP. 1999; *L'éducation civique dans l'enseignement secondaire: quelques repères historiques. L'école du citoyen*. 1999. Iregui, 7, 11-27. orr.; *Concepts de base et compétences clés de l'éducation à la citoyenneté démocratique*. Conseil de l'Europe, DECS/CIT. 1999; *L'éducation civique à l'école primaire et au collège en France: un ancien projet, des tensions permanentes, une actualité renouvelée*. 1999. Collection Thématiques, CIFEDHOP, 7, 33-51. orr.